

EBAZPENA, 2026ko APIRILAREN 01koa, **UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA**, ZEINAREN BIDEZ ZUZENTZEN DEN 2026ko URTARRILAREN 29ko ERABAKIA, IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREEN KONTRATUAK ESLEITZEKO LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEKOA.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- - 2026ko urtarrilaren 29ko ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen UPV/EHUko irakasle laguntzaile doktoeren plazetarako kontratuak esleitzeko, eta 2. hurrenkeran PADCL2-D00113-2 barne kodedun plaza zegoen, Euskara eta Komunikazioa jakintza arlokoa.

Bigarrena.- Akats bat antzeman da PADCL2-D00113-2 kodedun lanpostuari dagokion epaimahaia izendatzeko ebazpenean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- - Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, erabaki hau emateko, hala xedatzen baitu Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakiak, gobernu taldeko kideen ordezkapenei buruzkoak.

Bigarrena.- - Honela dio 109.2. artikuluan urriaren 1eko 39/2015 Legeak, *Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak: Administrazio publikoek edozein unetan zuzen ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoa.*

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- PADCL2-D00113-2 plazari dagokion epaimahaia izendatzeko ebazpenean egindako akatsa zuzentzea, eta honekin batera doan eranskinean jasotakoa izendatzea haren ordeiz.

Bigarrena.- Epaimahai proposamen zuzena UPV/EHUren webgunean argitaratzea.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen kontra aukerako berraztertze errekurtsua jar dakiok UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.

Leioan, 2026ko apirilaren 01an

Sin.: Efen Areskurrinaga Mirandona
IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEA

CONCURSO PUBLICO PARA LA ADJUDICACION DE CONTRATOS
KONTRATUAK ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA PUBLIKOA
IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREA / PROFESOR AYUDANTE DOCTOR

DEIALDIA/CONVOCATORIA:	2026/2027
DEIALDIKO DATA/FECHA CONVOCATORIA:	29/01/2026
DEIALDIAREN ZENBAKIA/ORDINAL CONVOCATORIA:	2
LANPOSTU ESPEZIFIKOA/PUESTO ESPECIFICO:	PADCL2 - D00113 - 2
SAILA/DEPARTAMENTO:	Lengua Vasca y Comunicación / Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa
JAKINTZA ARLOA/AREA CONOCIMIENTO:	Filología Vasca / Euskal Filologia
HIZKUNTZ ESKAKIZUNA/PERFIL LINGÜÍSTICO:	ELEBIDUNA (EUSKERA/GAZTELANIA) - BILINGUE(EUSKERA/CAST.)
ARDURALDIA/DEDICACION:	Tiempo Completo de 6 horas. Ayudante Doctor / Arduraldi osoa-6 ordu

Errektore honek, UPVEHUko Estatuetako 35.1 artikuluan (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa; 2011ko otsailaren 24ko EHAA) eta aldi baterako irakasle eta ikertzaileak kontratatzeko arautegiko 5. artikuluan (2011ko maiatzaren 31ko EHAA) aitortzen zaizkion eskumenak erabiliz, erabaki du honako epaimahai hau izendatzea:

Este Rectorado, en uso de las competencias que tiene conferidas por el artículo 35.1 de los Estatutos de la UPV/EHU aprobados mediante Decreto 17/2011, de 15 de febrero, del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (BOPV de 24 de febrero de 2011) y el artículo 5º de la regulación del procedimiento de contratación de personal docente e investigador temporal (BOPV de 31 de mayo de 2011), ha resuelto nombrar la siguiente Comisión de Evaluación:

COMISION DE EVALUACION / EBALUAZIO BATZORDEA		UNIBERTSITATEA/UNIVERSIDAD
Titularra /Titular	MIKEL LERSUNDI AYESTARAN	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Titularra /Titular	JOANA GARMENDIA MUGICA	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Titularra /Titular	BORJA NAVARRO COLORADO	Universidad de Alicante
Titularra /Titular	NURIA MARÍA PONCE MÁRQUEZ	Universidad Pablo de Olavide
Titularra /Titular	ADRIAN GRANADOS NAVARRO	Universidad Pablo de Olavide
Ordezkoa /Suplente	GONTZAL ALDAI GARAI	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ordezkoa /Suplente	LARRAITZ ZUBELDIA ARRUABARRENA	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ordezkoa /Suplente	JOSE MARÍA ARRIOLA EGURROLA	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ordezkoa /Suplente	ITZIAR GONZALEZ DIOS	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ordezkoa /Suplente	ORREAGA IBARRA MURILLO	Universidad Pública de Navarra
Ordezkoa /Suplente	PATXI XABIER SALABERRI ZARATIEGI	Universidad Pública de Navarra
Ordezkoa /Suplente	ITZIAR ADURIZ AGIRRE	Universidad de Barcelona

Izendapen-ebazpen honen kontra aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio errektore andreari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi errekurtsua jurisdikzio horretako Bilboko epaitegian, eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da lehiaketa web orrian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Contra la presente resolución de nombramiento cabe la interposición de recurso potestativo de reposición, ante la Sra. Rectora, en el plazo de un mes, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de dicha jurisdicción de Bilbao, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su publicación en la página web.

Leioa, 2026-04-01a

Leioa, 01/04/2026